



**Kontratazio**  
publiko elektronikoa  
**Contratación**  
pública electrónica

# Enpresak homologatzeko prozesua, Kontratazio Sistema Dinamikoetarako

(Kontratazio elektronikoa bakarrik  
egiteko prozedurak)



[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)  
[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

15



Administrazio-kontratazioari buruzko 18/2004/EE erkidegoko zuzentarauak, ta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, elektronikoak bakarrik diren ondorengo kontratazio mota berriak sortzea jasotzen dute:

- Enkante Elektronikoa
- Elkarrizketa Lehiakorra
- Kontratazio sistema dinamikoak

### Kontuz!. Hemendik gutxira negozio aukerak gal ditzakezu!

Europar Batasunak helburu gisa ezarri du 2010. urterako Europako administrazio publikoaren kontratazioaren %50a prozedura elektronikoen bidez egitea, eta Eusko Jaurlaritzaren asmoa da helburu hori ahalik eta lasterren lortzea.

### Hemendik gutxira, Kontratazio Sistema Dinamikoak erabiltzen hasiko dira Eusko Jaurlaritzan

Eusko Jaurlaritzak aipatutako erkidegoko zuzentzaraua betetzeko kontratazio elektronikoaren proiektuaren aurrean duen jarrera proaktiboa dela-eta, funtzionaltasun berriak kontratatu dira, elektronikoak bakarrik diren kontratazio tipologiak erabili ahal izateko.



Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua



## Kontratazio Sistema Dinamikoak hastapenak

Kontratazio Sistema Dinamikoak elektronikoki bakarrik egiten diren kontratazio prozedurak dira, eta helburua erabilera arrunteko hornidurak eskuratzea. Denbora mugatuta duen prozedura da, 4 urte gehienez, eta hautaketa irizpideak bete dituzten eta interesa duten enpresa guztiak parte har dezakete, kontsulta irizpideei jarraiki, eskaintzaren bat aurkeztu badute.

Eskurapenerako Sistema Dinamiko bat kudeatzeko prozesua, ondorengo elementuen argitalpenarekin hasi zen:


- Eskurapenerako Sistema Dinamikoko espediente bat den iragarpena, eta esleipen irizpideak ezartzea.
- Kontratatu diren elementuen izaera zehaztea ahalbidetzen duten zehaztapenak, eta baita eskurapen sistemari eta kontratazioa garatzeko baliabide informatikoei buruzko informazio guztiak.

Zehaztapenei jarraiki, eskaintza aurkeztu duten enpresa guztiak parte har dezakete eskurapenerako sistema dinamiko bat kudeatzeko prozesu osoan, eta sistema dinamikoak irauten duen bitartean eskaintza hobetzeko aukera dute.

Sistemaren garapena, eta kontratuen esleipena, baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez bakarrik egin beharko dira. Gainera, ondoren baldintzak bete beharko dituzte:

- Sistema dagoen bitartean, interesa duten enpresaburu guztiak aurkeztu ahal izango dute eskaintza, haren barruan sartzeko.
- Sistema dinamiko baten esparruan esleitu nahi den berriazko kontratu bakoitzarekin, eskaintza jakin bat egin beharko da.
- Eskaintzak edozein unetan hobetu ahal izango dira; betiere zehaztapenei jarraitzen badiete.

Azkenik, nabarmendu behar da Administrazioak Eskurapenerako Sistema Dinamiko baten barruan erabili ahal izango duela enkante elektronikoa.




## Zer egin behar dut Eskurapenerako Sistema Dinamikoetara hartzeko?

Eskurapenerako Sistema Dinamikoak baliabide elektronikoen bidez bakarrik egin daitezkeenez, ezinbestekoa da enpresak baldintza tekniko eta administratiboak betetzea, eta kontratazio elektronikoa trebatzea, nahiz horrekin saioak egitea.

Eusko Jaurlaritzak gutxieneko baldintza horiek eskatuko ditu baldintza teknikoak gisa Kontratazio Sistema Dinamikoetan parte hartu ahal izateko, eta komenigarria da Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak emandako ziurtapen digital baten bidez egiaztatzea.

Administrazio Publikoak etorkizunean erabiliko duen mekanismoarekin prestatu, esperimendu eta ohizera gonbidatzen zaitugu.

Behin prest zaudenean, Eusko Jaurlaritzak zure enpresaren jarduerarekin zerikusia duen Kontratazio Sistema Dinamikoetara iragarri arte zain egotea besterik ez duzu egin behar, parte hartu ahal izateko.




## Enpresak homologatzearen komenigarritasuna, Kontratazio Sistema Dinamikoetara baldintza tekniko edo zientifikoetara xedeetarako

Eusko Jaurlaritzak etorkizunean Kontratazio Sistema Dinamikoetara baldintza teknikoak gisa eskatuko dituen gutxienekoak ondorengoak izango dira:

- Kontratazio elektronikoko prozesuetan parte hartuko duten zure enpresako pertsonak **Izenpe-ren ziurtagiri elektronikoa** lortzea. Kontratazio elektronikoa erabili nahi duten pertsonak Izenpe-k emandako ziurtapen elektronikoa izan behar dute, aurreikusitako bi modalitate edozeinetan:
  - Herritar ziurtagiria
  - Entitatearen ziurtagiria

Kontratazio Publiko Elektronikoa parte har dezaketen pertsona guztiek Izenpe-ren ziurtagiria eskuratu behar dute.

Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua



Hartarako, Izenpe-ren ziurtagiriak lortzeko prozedura ondorengoa da.

- Ziurtagiri eskaeraren formularioa betetzea:  
<http://www.izenpe.com>
- Aurretik ordua eskatzea erregistro leku batera joateko. **902 542 542**
- **Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematea.** Zure enpresa izena emanda ez badago, izena eman dezakezu. Kontratisten Erregistro Ofizialean izen-ematea berritzeko baldintzak ondorengo helbideetan kontsultatu daitezke:
  - [www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)
  - [www.euskadi.net/Kontratazioa](http://www.euskadi.net/Kontratazioa)
  - [www.euskadi.net/contratacion](http://www.euskadi.net/contratacion)
- Bete "**Kontratazio Publiko Elektronikoa**ren sisteman **alta**" emateko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean. Elektronikoki eskaintza egin ahal izateko baldintzetako bat da hori, eta Administrazioak egiaztatuko du, Kontratisten Erregistroaren aplikazioan datuak irakurri eta gero.

- Enpresako bi pertsona gutxienez Eusko Jaurlaritzak eskainiko Kontratazio Elektronikoa inguruko **prestakuntza ikastaroetara** joan beharko dira zuzenean. Batez beste 3 inguruko 5 ikastaro ematen dira hilero, ondorengo lekuetan:

- Xede horretarako gaituta dagoen Eusko Jaurlaritzaren egoitzako gela batean (Vitoria-Gasteiz).
- Bilboko KZguneetako geletan (KZgunea Deustu).
- Donostiako Miramón Digital-eko gelan.

Ikastaroen egutegiak ondorengo helbideetatik sar daitekeen webaren "Formazioa" atalean kontsultatu ahal izango dira:

- [www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)
- [www.euskadi.net/Kontratazioa](http://www.euskadi.net/Kontratazioa)
- [www.euskadi.net/contratacion](http://www.euskadi.net/contratacion)

- "**Enpresak Homologatzeko proba librea Kontratazio Sistema Dinamikoetarako**" izeneko proba libreko espedientearen eskaintza era elektronikoa egitea. Administrazioak egiaztatuko du hori, proba libreko aipatu espedientearen aurkeztutako eskaintzen datuak irakurri eta gero.

Eusko Jaurlaritzari,  
Sistema Dinamikoetarako  
homologatzeko, bidali  
behar zaion enpresa  
homologatzeko  
eskaeraren eredu

**Eusko Jaurlaritza**  
Ogasun eta Herri Administrazio saila  
Ondare eta Kontratazio zuzendaritza  
Donostia - San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

Norentzat: **Sr. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga.**  
Ondare eta Kontratazio zuzendaria.

Jaun agurgarria;

..... (izena eta abizenak)..... Jaunak, ..... NAN zenbakiarekin, .....egoitza duen  
.....enpresako arduradun gisa,  
Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan utzitako eskritura publikoak emandako eskumenak erabiliz,

**Honakoa adierazten du:**

1. Badakigu administrazio kontratazioari buruzko 18/2004/EE erkidegoko zuzentarauak eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, Kontratazio Sistema Dinamikoak sortzea jasotzen dutela, elektronikoko bakarrik diren kontratazio tipologia berriak gisa.

2. Kontratazio Sistema Dinamikoak baliabide elektronikoen bidez bakarrik egin daitezkeenez, gure Enpresak eskaera tekniko eta administratiboak bete dituela, eta kontratazio elektronikoa trebatu dela; baita saioak egin ere.

3. Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak Enpresak homologatzeko emandako ziurtapen digitala eskatu nahi duela, Kontratazio Sistema Dinamikoek eskatzen dituzten baldintza teknikoak xedeetarako.

4. Gure enpresak baldintza tekniko eta administratiboak betetzen dituela, eta kontratazio elektronikoa trebatu garela, eta erabili dugula. Horri dagokionez:

- Gure Enpresa Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dago, zenbaki honekin: .....
- Gure enpresak "Kontratazio Elektronikoko Sistemari" eman duela Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean.
- Gure enpresako ondorengo pertsonak Eusko Jaurlaritzak eskaintako Kontratazio Elektronikoiari buruzko ikastaroetan zuzenean parte hartu dutela.

Izen-abizenak: .....  
Parte hartu zuen ikastaroaren data: .....  
Ikastaroa eman zen lekua: .....

Izen-abizenak: .....  
Parte hartu zuen ikastaroaren data: .....  
Ikastaroa eman zen lekua: .....

5. .... egunean, gure Enpresak, "Enpresak Homologatzeko proba librea Kontratazio Sistema Dinamikoetarako" izeneko proba libreko espedientean eskaintza egin zuela elektronikoki.

Eta jasota gera dadin, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sistema Dinamikoetan parte hartzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak betetzen ditudala egiaztatzeko, honakoa sinatzen dut..... n..... (e)ko ..... ren .....(e)an

Sinadura.

## Zure esanetara gaude laguntzeko

Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikoen Sistemaren Erabiltzaileen Arretarako Zentroa sortu du, eta euskarria nahiz laguntza eskaintzen dio bere eskaintza euskal Administrazioarekin era elektronikoa egin nahi duen edonori. Kontratazio Publiko Elektronikoen Sistemaren Erabiltzaileen Arretarako Zentroa helburu hauekin sortu zen:

- Pertsonekin harreman zuzena duen gunea eskaintzeko, enpresa bakoitzean Kontratazio Elektronikoak erabil dezaten.
- Aplikazioak erabiltzean euskarria emateko, eta egon daitezkeen gorabehera konpontzen laguntzeko.

"Zuzenean", Eusko Jaurlaritzaren Hiritarren Arretako Zerbitzua, telefono bidez nahiz posta elektronikoen bidez kontsultak egiteko bidea da.

- **012** telefonoa, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deietarako.
- **945 01 80 00** telefonoa, Estatuko gainerako lekuetatik egindako deietarako.
- Interneteko helbidea: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
- Helbide elektronikoa: [laguntzakpe@ej-gv.es](mailto:laguntzakpe@ej-gv.es)

